

HAUSNARKETAK

PROZESUEN ETA TAILERREN DESKRIBAPENA

NOMADA JAIALDIA

Bazterrak zeharkatzea,

Hirietan bizitzea

#Nomada2023

#CulturaComuntaria

#KulturaKomunitarioa

Ertzetan bizitzeak esan nahi du ikusgai eta ikusezin den horren mugen artean, entzuten diren eta isiltzen diren ahotsen artean ibiltzea. Ertzean edo bazterrean geratzea esan nahi du, halaber, bizitza batzuek garrantzia dutela eta beste batzuek eztabaidetatik, agendetatik, lehentasunetatik eta egunerokotasunetatik kanpo uzten direla.

Erronka honi erantzuteko, Nomada Jaialdia etengabeko mugimendua dagoen elkargune gisa aurkezten da. Bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonak eta kolektiboak biltzen ditu, lurraldeko gizarte erakunde eta kultura-eragileekin batera. Helburua da proiektu artistikoak eta komunitarioak elkarrekin sortzea, bizitza beraien lehentasunen erdigunean jarriko dituzten hiriak eraikitzeko.

Izan ere, Nomadan jaialdi bat baino gehiago eraikitzen ari gara, mugimendu bat eraikitzen ari gara. Bat egin dezagun bizitza bakoitza kontutan hartzen dituen hiriak sortzeko.

Datorren azaroaren 23an, 18:00etan, Tabakalerako Kutxa Kultur aretoan, "Feminismoa, Kultura eta Erresistentziak" solasaldia hasiko dugu. Publikoari irekitako elkarrizketa-espazio bat, eta bertan aztertuko dira kulturak eskaintzen dituen aukerak eraldaketa estrategia bezala, gure komunitateetan dauden pertsona eta kolektibo zaurgarrientzat. Gurekin izango dira: Eugenia Tenenbaum, emakumeen emantzipazio-prozesuetan kulturak eta arteak duten papera atzera begirako ikuspegi batetik; Mafalda Saloio, antzerkia, dantza, birziklapena eta topaketa gertagaitzak uztartuz; eta, Bidez-Bideko Soraya Ronquillo, poesia dekolonialetik eta emakume migratuen jakintzak, sentipenak eta erresistentziak berreskuratzetik abiatuta, subjektu politiko gisa duten presentzia aldarrikatzeko.

Hilaren 26an eta 27an, herritar guztientzat zabalik egongo den programazio bat garatuko da hiriko leku ezberdinetan, besteak beste, antzerkia, dantza, argazkigintza, txotxongiloak, musika, serigrafia eta beste zenbait jarduera gehiago. Jaialdi honek pertsonen eta taldeen ahotsak, begiradak eta proposamenak islatu nahi ditu. Pertsona eta talde horiek, beren bizitza-istorioen eta erresistentzien bidez, premiazoak eta beharrezkoak diren hiri desberdin batzuei buruzko gogoeta egitera, irudikatzea eta sortzea gonbidatzen gaituzte. Egin bat zure ikuspegi eraldatuko duen eta hiria sormenez, konpromisoz eta arte handiz bizi araziko duen esperientzia honekin"

ELKARRIZKETA eta GIZARTE PARTAIDETZA

Ertzetan bizitzeak esan nahi du ikusgai eta ikusezin den horren mugen artean, entzuten diren eta isiltzen diren ahotsen artean egotea eta ibiltzea. Bazterrera gelditzea esan nahi du, halaber, bizitza batzuek garrantzia dutela eta beste batzuek eztabaidetatik, agendetatik, lehenetasunetatik eta egunerokotasunetatik kanpo uzten direla.

Horren aurrean, Nomada Jaialdiak pertsona, gizarte-erakunde eta kultura-eragileen arteko topagune ibiltaria izan nahi du, bizitza guztiak erdigunean jarriko dituzten hiriak eraikitzeke arte- eta komunitate-proiektuak taldean sortzeko.

SOLASALDIA FEMINISMOA KULTURA ETA ERRESISTENTZIAK

“Feminismoa, kultura eta erresistentziak: komunitatea sortzen kultura-tresnetatik.

Zein izan da historikoki emakumeei esleitutako rola? Nola esploratu ditzakegu adierazpen berriak, subjektu politiko gisa aldarrikatzen lagunduko digutenak? Nola irits gaitzke ikuspegi komunitario baterantz gure esku-hartzeetan?

Datorren azaroaren 23an, 18:00etatik aurrera, Kutxa Kultur aretoan (Tabakalerako 4.solairua) Eugenia Tenenbaum, Mafalda Saloio eta Soraya Ronquillo gai horien inguruan hitz egingo dute, Emaús Gizarte Fundazioa Nomada proiektuaren esparruan antolatzen ari den solasaldian. Bertan, kulturak gure komunitateetan dauden kolektibo zaugarrientzako eraldaketa-estrategia gisa ematen dituen aukerak aztertzen lagunduko dute.

Datorren azaroaren 23an Nomada Jaialdia abiatuko da, programatutako lehenengo jarduerarekin, solasaldi bat izango dugu kultura, artibismoa eta komunitate esku-hartze eremuetan ibilbide luzea duten pertsonekin. Solasaldi gune hau herritarrei irekia egongo da eta aukera paregabea izango da sormen- eta eragin-esperientziak elkarbanatzeko. Artea eta kultura ezinbesteko tresna bihurtzen dira, premiazoak eta beharrezkoak diren beste komunitate batzuk hausnartzeko, irudikatzeke eta sortzeko.

Solasaldian izango dira Eugenia Tenenbaum (artea, hiri bizigarriak, feminismoak), Mafalda Saloio (antzerkia, dantza, birziklapena, topaketa gertaezinak) eta Soraya Ronquillo Bidez-Bidezkoa (poesia, dekolonialtasuna, giza eskubideak, emakume migratuak).

- Data: 2023/11/23
- Lekua: Kutxa Kultur. Tabakalera
- Ordua: 6pm-8pm

Eugenia Tenenbaum genero ikuspegian espezializatutako arte-historialaria. Kultura-dibulgazioan eta arte-kritikan aritzen da sare sozialetan, bereziki Instagramen eta Patreonen. Komunikatzaile bezala, bisita gidatuak, hitzaldiak eta tailerrak ere ematen ditu, arteari, feminismoari eta genero-harremanak ekoizpen artistikoaren sorkuntzan, harreran eta hedapenean duten eraginari buruz, kongresu, unibertsitate, institutu eta beste espazio

batzuetan. 2022 urtean bere lehen liburua argitaratu zuen, “La mirada inquieta”, arteari buruzko saiakera bat, eta 2023ko apirilean bere lehen fikziozko lana, “Las mujeres detrás de Picasso”.

Mafalda Saloio, Jacques Lecoq Eskolan antzerki fisikoan hezia. Aktore eta sortzaile gisa lan egiten du, hainbat talderekin batera, antzerkia, dantza eta musika bezalako lengoia artistikoen arteko gurutzaketa sustatzen duten proiektuak garatzen. 2000 urteaz geroztik komunitatearekin gizarte esku-hartzeko lan baten aldeko apustua egiten du, antzerkia elkargune eta giza garapena da.

Soraya Ronquillo, jaiotzez perutarra. Gizarte Langilea da eta Gizarte Antropologiako ikasketak ditu Euskal Herrian ikasiak. Ekintzaile feminista dekoloniala eta herri-hezitzailea. Bidez Bidez elkartean parte hartzen du, eta Gipuzkoan hainbat jatorritako emakume migratuen giza eskubideen alde egiten du.

DANTZA

Dantza garaikidea nabarmentzen duen esplorazio artistikoa, gorputzaren eta mugimenduaren bidez elkartzeko eta adierazten bide gisa. DAB elkartearekin (Dantza Artea Bitartekaritza) elkarlanean, 10 saio burutu ditugu “Emergiendo de la nada” izeneko koreografia sortzeko, Emaúsek kudeatzen duen Munto eguneko zentroa osatzen duten pertsonak aktiboki integratuz.

Testuinguru honetan, dantza adierazpen artistiko hutsetik haratago doan bitarteko bihurtzen da; ezarritako arauak aztertu eta horiei aurre egiteko, enpatia sustatzeko eta indibiduen eta komunitateen arteko lotura sakonak eratzeko tresna boteretsua bihurtzen da. Koreografiaz landutako mugimenduen bidez, dantzak hizkuntza- eta kultura-oztopoak gainditzen ditu, eta hizkuntza unibertsal bihurtzen da, istorioak kontatzeko, emozioak transmititzeko eta, esanguratsuen, askotan isilarazi egiten zaien pertsona horien ahotsa adieraztea.

Sorkuntza komunitarioko prozesu honi amaiera emateko dantza-lan bat aurkeztuko da azaroaren 27an, Donostiako Antzoki Zaharrean goizeko saioan, Nomada Jaialdian. Ikastetxe ezberdinetako ikasleak izango dira goizeko ikusleak, “Ikusezinak” elkar ezagutzeko eta ikus-entzunezko prozesuan parte hartu dutenak. Gainera, grabatutako eta prozesu guztia gertutik dokumentatzen duen ikus-entzunezko materiala proiektatuko da, Emaúsek Munton dituen gizarte-programetan bazterketa egoeran dauden pertsonen eta Axular ikastetxeko ikasleen arteko lotura nabarmenduz.

ANTZERKIA

NOMADAK antzerkiaren aldeko apustua egiten du, gizarte eraldatzeko tresna parte-hartzaile eta eragile gisa. Horregatik, azaroaren 27an Las Poderosas eta Ados Teatroarekin bate egingo dugu esperientzia paregabea eskaintzeko. Presta zaitez kalitate artistikoagatik ez ezik, balio kritiko eta konpromiso sozial handiagatik ere nabarmentzen diren bi lanetan murgiltzeko. Bat egin gurekin antzerkiaren aldeko apustuari eskainitako jardunaldi honetan, entzunak izatea merezi duten istorioak desafiatzen, inspiratzen eta ahotsa ematen diotena. Donostiako Antzoki Zaharrean izango gaituzu zain 17:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da, lekua bete arte. Ez galdu!

- 2017an, Iruñean, Las Poderosas izeneko emakume taldea sortu zen, Acción Contra la Trata - ACT elkarte nafarraren eskutik. Nafarroan bizi diren, hamar herrialde ezberdinetako berrogeita hamar emakume baino gehiagok osatzen dute. Las Poderosas helburu komun batek

elkartzen ditu: mundua aldatzea. Emakumeen eskubideak defendatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerrarazteko erabakian oinarritzen da batasuna.

- Ados Teatroak “Nadie está lejos” aurkeztuko du, Aporofobia Stop programan parte hartu zuten pobrezia-egoeran edo etxerik gabe dauden pertsonen eraldaketa azaltzen duen proiektu hunkigarria. Arte eszenikoaren bitartez, Ados Teatroak, dokumentatzea ez ezik, gure gizartean baliabide gutxien dituzten pertsonak aurrez aurre duten gaitzespena agerian jartzea ere proposatzen du. Beraien lanaren bidez arte eszenikoen eta ikusiak izan behar duten errealitateen arteko lotura sendoa aztertzea gonbidatzen gaituzte.

IKUSEZINAK

IKUSEZINAK/ INVISIBLES prozesuak ikus-entzunezko sorkuntza esploratzea dakar, estereotipoak deseraikitze eta gure komunitatean bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden kolektibo eta pertsonekin loturak sortzeko tresna gisa. Horrela, bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxek beren gelak ireki dituzte ikasleen eta Emaúseko programetan parte hartzen duten pertsonen artean trukeak sortzeko. Azken horiek, beraien bizitzako istorioen bidez, ikus-entzunezko film laburrak sortzeko inspirazioa eman dute, irudiak gizartea sentibilizatzeko eta eraldatzeko tresna gisa duen ahalmena aitortuz.

Azaroaren 27ko goizean, topaketa gertagaitz horietatik sortutako film laburrak emanaldi berezi batean aurkeztuko dira Donostiako Antzoki Zaharrean. Hori dela eta, ekitaldi hau ospatzeko eta berriz elkartzeko aukera izango da, nerabeen bertaratzea eta parte-hartzea izango baitugu. Gazte horiek funtsezko zeregina bete dute sentibilizazioko eta salaketako ikus-entzunezko produkzioan, Emaúsekin lotura duten eta beraien testigantzak eman zituzten pertsonekin aktiboki lankidetzan arituz.

Film laburrak proiektatu ondoren solasaldi labur bat egingo da. Bertan, ikasleak eta Emaúseko gizarte-proiektuetako pertsonak eszenatokira igoko dira beren esperientziak, ikaskuntzak eta hausnarketak elkar-banatzeko. Horrela, aukera paregabea emango zaie prozesuan zehar nola sentitu diren eta zer ikasi duten adierazteko, besteak beste.

HARIEN AMETSAK

Tolosako TOPIC Museoaren eskutik, HARIEN AMETSAK prozesuak bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonak eta kolektiboek sortutako txotxongiloak sortzeko prozesuak barne hartu ditu. Horrela, birziklatutako materialekin sortutako txotxongiloak inpaktu handiko kultura-tresna bihurtzen dira, erabiltzen ez diren produktuei bizitza berri bat emateko, ingurumena zaintzeari buruz sentibilizatzeko eta sormen- eta adierazpen-gaitasunak sendotzeko. Sortutako txotxongilo bilduma Garberako Merkataritza Gunean egongo dira ikusgai azaroaren 21etik 30era.

Horrez gain, **igandean, hilak 26, 11:00etatik aurrera Donostiako Gipuzkoa Plazan, Kromosoma taldeak** txotxongilo-artean murgiltzera gonbidatzen gaitu tailer didaktiko baten bidez, publiko

guztiarentzat irekia. Gure txotxongiloak eraikitzeo aukera izango dugu, bizitzaz, ametsez eta abentura ugariz hornituz.

KARTOIZKO ETXEAK

KARTOIZKO ETXEAK sorkuntza kolektiboko proiektu bat da. Bertan, material birziklatuekin eta iragankorrekin etxeak eraikitzen dira, eta, ondoren, instalazio handi bat muntatzen da espazio publikoan. KARTOIZKO ETXEAKen asmoa sorkuntza artistikoaz haratago doa; kartoia bezalako material bat etxe baten sinbolismoarekin egindako fusiotik ateratzen diren inplikazioei buruz elkarrizketa eta hausnarketa bultzatzea bilatzen du. Ignacio Perez-Jofre Pontevedrako artista eta Arte Ederretako irakaslearen proposamen honek funtsezko gaiei buruzko pentsamendu bisual kritikoa sustatu nahi du, hala nola hirigintza, arkitektura, bizitegi-bazterketa eta etxebizitza duina eskuratzea.

Gerturatu zaituz datorren azaroaren 26an, goizeko 11etatik aurrera Gipuzkoa Plazan egongo gara kartoi eta beste material askorekin. Bat egin kartoizko etxeak sortzeko prozesu ireki honekin eta parte hartu eraiki, eraldatu eta bizi nahi ditugun hirien etorkizunari buruzko hausnarketa kolektiboan. Ez galdu eraikuntza eta hausnarketa urbanistikoaren esperientzia hau!

ARTIBISMO TAILERRA

ARTIBISMOAk artelan baten antzeko zerbait bezala ulertzen du gizarte eraldaketa, irudimena eta sormena eskatzen dituen ariketa kolektibo bat. Gainera, artearen eta ekintza politikoaren arteko lotura faltak asebate gabe, Colectivo Enmedio (Bartzelona) irudien eta kontakizunen ahalmen eraldatzailea aztertzen du. Esku-hartze ikusgarriak egiten dituzte eskura duten guztia erabiliz: argazkiak, komunikabideak, diseinua, besteak beste. Horrela, interferentziak sortzen dituzte kontakizun nagusian; etenak munduaren azalpen ofizialean.

Azaroaren 25ean eta 26an sorkuntza kolektiboko tailer batera gonbidatzen zaitugu, Oriana Eliçabek eta Leonidas Martinek dinamizatua, Enmedio kolektiboko kide nabarmenak. Tailer honek, herritar guztiei irekia, ARTIBISMOAN murgilduko zaitu argazkigintzaren bidez teknika sortzaileen eta eraldatzaileen bidez.

Zure zain egongo gara Emaús Social Faktoryn (Mundaiz, 6), ARTIBISMOAren esperientzia honetara elkartu zaituzten. Elkarrekin batera proposamen bat eraikiko dugu, herritarrak sensibilizatzeko, astintzeko eta mobilizatzeko, bereziki etxebizitza eskubidea bezalako gai garrantzitsuetan. Zatoz eta izan zaituz ekimen paregabe honen parte!

IRUDIAHOTS TAILERRA

FotoVoz teknikaren bidez partaidetza-prozesu bat bultzatzen da. Prozesu horretan, historikoki isilarazita egon diren kolektiboek eta bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonak beraien begiradak, kezak eta sentipenak proiektatzen dituzte argazkien bidez, etxebizitza eskubidearen gaiari buruz.

Horretarako, azaroaren 26ko goizean, Emaúseko gizarte proiektuetan parte hartzen duten pertsonak, Joseba Parron argazkilariarekin batera, hiriko kaleak zeharkatuko dituzte errealitate ezberdinei argazkia ateratzeko, ikuspegi ezberdinetatik. Inprimagailu eramangarri bat izango dugu, eta horri esker zuzenean errebelatu ahal izango dugu, eta, elkarlanean, erakusketa bat egin ahal izango dugu, jardunaldian ateratako argazkiekin.

Argazkigintzan interesa baduzu edo kultur jardunaldi paregabe batean parte hartu nahi baduzu, datorren igandean, 26an, Donostiako Gipuzkoa Plazan 11:00etatik aurrera parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Ez ahaztu zure mugikorra edo argazki-kamera ekartzea eta etxebizitza eskubidea fokuan jarriko duen ikusizko kontakizun kritiko eta kolektibo hau sortzen laguntzea.

HITZEI BIZIA EMAN

@proyectediccionario erreferentzia eta inspirazio gisa hartuta, prozesu parte-hartzaile bat planteatzen da, gogoeta egiteko eta askotariko pertsonak beste komunitate posible, premiazko eta beharrezko batzuk eraikitzeke dituzten ahots, pertzepzio eta sentipenak ikusarazteko.

Horrela, modu anonimoz, sortailean eta benetakoan, hausnarketa- eta partaidetza-prozesu bat bultzatzen da. Prozesu horretan, eguneroko hainbat kontzepturi forma eta edukia ematen zaie, garrantzi handikoak direnak gure imajinarioen eraikuntzan. Aldi berean, eraiki nahi/behar ditugun komunitate-motak birplanteatzera gonbidatzen gaitu.

Véala-rekin elkarlanean, ber(definizio) ezberdinak soinu-baliabide batean biltzen dira, eta proiektatuko da, espazio publikoko instalazioari entzumen-dimentsio bat gehituz. Itxiera gisa, kartelak itsasteko ekintza kolektibo bat egingo da hiriko horma batean, eta, horrela, kontzeptu eta ber(definizio) berrien mosaiko handi bat sortuko da, kaleetan oihartzuna izango duena.

“Habitar la palabra” ekimenak askotariko ikusleen parte hartzea izan du: Derio, Beasain, Arrasate, Donostia eta Errenteriako Emaús GFko gizarte proiektuekin lotutako pertsonak; Derioko Nagusien Etxeko adineko emakumeak; UPV/EHUko Hezkuntzako ikasleak eta irakasleak; Wikitokiko taldea eta esperientzia narratibo honekin gogotsu elkartu ziren beste pertsona asko.

AHOTSAK, TINDAKETA ETA EKIN! - Serigrafia Parte-hartzaile tailerra

Prozesu artistiko honek etxebizitza-eskubidearen inguruan isildutako narratibak atzematen ditu, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak protagonista dituztenak, besteak beste, Emaúseko zentroetako parte-hartzaileak, Bidez-Bidez kolektibo dekolonialeko emakume migratuak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriako atzeritar jatorriko Etxeko Langileen Taldea. Sormenezko dinamiken bidez, hala nola hilotz bikainaren jolasaren bidezko literatur sorkuntzaren bidez, haien ahotsak, esperientziak eta eskariak ikusgai bihurtzen dira. Serigrafiako teknikak erabiliz, istorio horiek partekatzeko kartelak argitaratuko dira.

Gainera, Hibernando Kolektiboaren eskutik, azaroaren 26an serigrafia parte-hartzaileko saio bat burutuko da herritar guztientzat irekia. Zatoz Donostiako Gipuzkoa Plazara goizeko 11etatik aurrera eta ekarri kamiseta/poltsa bat edo edozein arropa/ehun, zuk zeuk serigrafia egin ahal izateko!